

## **Euskal Iheslari Politikoen Kolektiboak Euskal Herriari:**

Martxoaren 22an Arrangoitzen egindako agerraldian Euskal Herriari bide orria gauzaten hasteko erabakia hartua gurela jakinarazi genion. Aukera eskaintzen duten egoerei soluzioak ematen hasteko hautua egina gurela. Horrela egiten ari gara, egunegun, astez aste, hamarnaka iheslari dira erbestearekin amaituz sorterrietara itzultzen hasiak direnak. Bidea eginez goaz. Sortutako ilusioa soluzio orokorraren aldeko indar bilakatu behar dugu. Garatu beharreko prozesu demokratikoaren baitan erbestearekin behin betiko amaitzeko.

Eskerrak gure herrietako kaleetan beso zabalik hartu gaituzten herritar guztiei. Eskerrak ere oraindik babesten gaituztenei. Baita, bide orria babestuz, konponbide justu eta iraunkorraren alde lanean diharduten eragile sozial eta politikoei ere.

Baina oraindik badugu bidea egiteko. Euskal Herrian luzaz pairatutako gatazka politikoak eta haren ondorioak konponduak izateko akordio zabalak lortzeko momentua da. Konfrontazio zuzeneko garaietan, unean uneko salbuespeneko neurri bereziak sortu eta aplikatu zaizkio Euskal Iheslari Politikoen Kolektiboari.

Iritsi da garaia gure aurka erabili diren neurri errepresibo berezi guztiak bertan behera gelditzeko. Iheslari politikoen aurkako euro agindu eta atxiloketak gelditzeko. 80eko hamarkadan munduko herrialde desberdinetara deportatutako herritarrak libre euskal herriratzeko. Torturapean egindako adierazpenetan oinarritutako prozedura judizialak bertan behera uzteko. Legedi arruntean jada artxibatuta behar luketen prozedurak ixteko. Iritzi, adierazpen eta elkartze eskubideen aurka irekitako prozedura judizialei aterabidea emateko.

Berandu baino lehen, egoera larriengan bizi diren iheslarien bizi duintasuna eta oinarizko eskubideak ziurtatzeko neurriak hartzea galdegiten dugu. Gaixo larrien egoerei soluzioak eman. Finean, salbuespen neurriak gelditu, bizi duintasuna bermatu eta egia eraiki. Erbestearen arrazoiak eta ondorioak konpondu. Eta oraintxe baditugu erronka zehatzak: esate baterako, Maria Jesus Elorza atxilo da une honetan. Hasi duen etxerako bidea amai dezan gure bide orria ontzat eman duten eragile guztiei indar egin dezaten eskatzen diegu.

Gatazka politikoaren ondorioekin bukatzea ere gure esku dago. Herria da askapen borrokaren subjektu. Horregatik, herritar guztiei dei egiten diegu ekainaren 14an Giza eskubideak Konponbidea Bakea lemapean Baionan deitua den manifestazioan parte hartzera. Gure herriak merezi duelako, herritarrok merezi dugulako. Elkarrekin lortuko dugu!



### **Herria dugu arnas**

Euskal Iheslari Politikoen Kolektiboa  
Euskal Herrian, 2014ko ekainean